


BEGOÑA PEDROSA LOBATO

EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILBURUA



LARRUN #308



"BERRIKUNTZA EGITEAK PROZESUAN GORABEHERA ASKO DAKAR BATZUETAN, ETA HALA BEHAR DU"

EGILEA | **MIKEL GARCIA IDIAKEZ**

ARGAZKIAK | **DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA**

AZALA | **IÑAKI LANDA**. "B. Pedrosa", Eusko Jaurlaritzaren "Begoña Pedrosa 2024.jpg" CC BY 4.0 lizentziadun iruditik eratorria da. "B. Pedrosa" CC BY 4.0 lizentziaduna, Iñaki Landak egina.

Lanez lepo harrapatu dugun arren, eskuzabal hartu gaitu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak; elkarriketarako aurrez adostuta genuen denbora luzatzen utzi digu, luze jo baitu solasaldiak. Areatzan jaioa, Begoña Pedrosa Lobato Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle, ikertzaile eta ondoren dekanoa izan zen, Hezkuntza sailburorde izan da aurreko legegintzaldian, eta sailburua da 2024ko ekainetik. Karguan urtebete egin duelarik, berrikun-

tzaz aritu gara, baita baliabideez, premia berezidun ikasleez, burokraziaz, konpetentziak lan egiteaz, ebaluazioaz, segregazioaz, ikastetxeen arteko fusioez, EAEko hezkuntza sistemako sare ezberdinez, digitalizazioaz, euskara eta irakurmen mailaz, eskola jantokiez, osasun mentalaz... "Erantzun guztiak nahi ditugu, eta irakasle batzuek erraztasun handiagoa dute ziurgabetasun horretan murgiltzeko, baina beste batzuek ez. Oso legitimoa eta oso humanoa da, eta horri aurre egiteko lidergoak behar dira, irakasle liderrak".

LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA - ARGIAren 2.922 zenbakiarekin banatua.

JABEA: KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45
POSTA ELEKTRONIKOA: LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA
2025eko ekainaren 22a

■ **EAEko ikastetxe publikoetako irakasleentzat sindikatuekin akordioa lotu eta gutxira, hainbat eskoletako zuzendaritzetatik haserre agertu dira, akordioan lortutako baliabideak ez zirela oraindik martxan jarriko esan zitzaielako Hezkuntza Saitetik. Sindikatuek salatu dute berriro ere bildu behar izan dutela zuekin, akordioa bete dadin presio egiteko. Zer gertatu da?** Langileen lanpostu zerrenda egiteko uneak topo egin du bete-betean

akordioa eta hitzarmena lortu den garaiarekin, eta kontraste asko egin behar izan dugu. Hau urtero gertatzen da, langileen lanpostu zerrenda egiten dugunean ikastetxeekin bilerak egiten ditugu eta aurtun zalantza batzuk egon dira, hain justu akordiotik eratorriak, horregatik egon dira gorabehera batzuk. Baina gertatu, ez da ezer gertatu, eta konponbidea eman zaio; urtero egiten da horrela. 2022an akordioa sinatu genuenean ere, figura berriak, heziketa bereziko irizpide berriak... sinatu geni-

tuen, eta horrek ere gorabehera pila bat ekarri zuen. Orduan ere tentsioa egon zen; zuzendari batzuk haserre- tzen dira, baina saiatzen gara konponbidea ematen ahalik eta ongien, eta sindikatuak sartu dira haien lana delako sinatu duguna aplikatzen dela ziurtatzea. Baina letra txiki asko dago makinan [langileak esleitzeko ikastetxeek darabilten aplikazioaz ari da], eta makinan datuak sartzen direnean, gorabeherak egoten dira. Hitz egin dugu eta berriro ere adostu dugu zelan inplementatuko den akordioa.

■ **Kontua da, makinatik harago, Eugenio Jimenez planifikazio arduradunak DBHko zuzendaritzei bileran esan ziela orain ez, aurrerago inplementatuko zirela akordio-ko baliabideak.**

Batzuetan, azalpenak modu batean ematen dira, eta azalpenak eman behar dira patxadaz, ongi azaldu- ta, zerbait aplikatzeak zein inpaktu duen adierazita... Teknikari- en kontua da eta sindikatuek batzuetan ez dute kontrolatzen, eta normala da, azaldu zaie sindikatu- ei eta azaldu zaie zuzendari- ei. Hainbat bilera egin ziren eta azken bilera oso ongi joan zen, eta ikastetxe- tara komunikazio bat bidali genuen, argitasun gehiago ematear- ren. Baina badiotsut, hau urtero gertatzen da...

■ **Ordez- kagune aplikazioak, horrek bai sortzen ditu gorabeherak urtero, ordez-ko irakasleak esleitzeko orduan.**

Guk bi momentu oso potente dauz- kagu ikastetxe publikoetan: bata da Langileen Lanpostu Zerrenda osa- tzerakoan, eta bestea, katearen bu- kaeran, Ordez- kagunerena. Denak joan behar du egutegi baten barruan ongi josita. Momenturen batean go- rabehera bat dagoenean, eragina du guztiengan, eta beti saiatzen gara intzidentzia guztiak ahalik eta azka- rren moztzen. Batzuetan, beharrez-



koa da ikastetxeetako zuzendariei entzutea, zer gertatu den jakiteko. Agian irizpide bat aplikatuta, ikastetxe handi batean inpaktu jakin bat dauka eta ikastetxe ertain batean beste bat.

Pentsa, kasik 600 zuzendaritza ditugu, hezkuntza etapa guztiak kon-tuan hartuta, beraz lagin bat hartzen da, eta horretarako lan handia egiten dugu HEIZErekin [Euskal Eskola Publikoaren Zuzendaritza Elkarteen Federazioa]. Guretzat oso inportantea da beraiekin modu sistematikoan biltzea eta informazioa trukatzeko. Gustatuko litzaiguke zuzendariekin denbora gehiago aritzea, baina aurren egokitu zaigu denbora gehiago egotea sindikatuarekin, eta asko ikasi dugu.

■ [Barre txikia egin du kazetariak]

Ez da ironia, asko ikasi dugu, berriz, eta zentzu onean diot.

■ **Baliabideez ari garela, zuzendaritza batzuk kezkatuta daude, hainbat ikastordutan ko-irakaskuntza ezingo dutelako berritu (alegia, aldi berean bi irakasle izatea ikasgelan, gelako aniztasunari eta beharrei hobeto erantzuteko). Baliabideen esleipenak ez luke berritu behar ko-irakaskuntza egin ahal izatea?** Ko-irakaskuntza ikastetxeen hautu bat da.

■ Gaur egun ikastetxe gehienena, ezta?

Gu saiatzen gara gehientsuenek aplikatu dezaten, baina ikastetxe bakoitzak ditu bere hezkuntza proiektuaren barruan egiteko modu propioak. Markoak ditugu, baina marko horiek testuingurura eraman behar dira, eta testuinguruak agintzen du. Ez baita gauza bera delako markoa klustro handi batean edo klustro txiki batean aplikatzea. PT bat [premia bereziak dituzten haurrei



“MOMENTU HONETAN, INOIZ BAINO BALIABIDE GEHIAGO DAGO. SARTU DIREN IRIZPIDE BERRIEKIN AUKERA GEHIAGO DAGO KO-IRAKASKUNTZA EGITEKO ETA BALIABIDEAK MODU MALGUAN ERABILTZEKO”

laguntzen dien irakasle espezializatua] edo beste figura bat sartzen bada ikasgelan tutorearekin batera, hor ko-irakaskuntza egiten ari gara, baina aurrez planifikatu eta antolatu behar da, eta uste dut hor dagoela muina, arrakastarako gakoa.

Azken bi urteetan formazioak eskaini ditugu, badira beren kabuz formatu diren ikastetxeak ere, baina inportanteena da gero eta ikastetxe gehiago sartu direla dinamika honetan. Gela berean irakasle bat baino gehiago aritzea ona delako ikaslearentzat: pertsonalizazioa dakar, begirada bikoitza, eta DBHn egiten ari diren tutoretza bikoitzak, adibidez, berrikuntza interesgarria dakar, dinamika aberasten du. Nik sinisten dut ko-irakaskuntzan, eta ez dago modu bakarrik ko-irakaskuntza egiteko; guk baliabide batzuk jartzen ditugu ikastetxeetan, eta bakoitzak erabakitzen du zelan erabiliko dituen.

■ **Baina baliabide horiek berritu behar dute ko-irakaskuntza egin ahal izatea? Adibidez, orain akordioan adostu den bezala irakasleek ordu lektibo gutxiago izatea (ordu horiek bideratzeko eskolak hobeto prestatzera, adibidez), aldi berean ikasgela berean bi irakasle aritzeko**

aukerak gutxitu dira; hori orekatuko dute baliabideek?

Momentu honetan, inoiz baino baliabide gehiago dago. Sartu diren irizpide berriekin aukera gehiago dago ko-irakaskuntza egiteko eta baliabideak modu malguan erabiltzeko. Adibide bat emango dizut: momentu batean erabaki zen atzerriko hizkuntza 3 urteko geletan sartzea, baina guk eman genuen jarraibidea izan zen espezialista baliatzea batez ere errefortzuetarako, eta ikastetxe batzuetan euskarazko elkar-ekintzetarako darabilte, hizkuntza proiektua indartzeko. Alegia, guk baliabide bat eman genuen eta baliabide hori modu ezberdinetan erabiltzen da ikastetxeetan, beti ere argi izanda zertarako erabiltzen ari diren. Niretzat, oso berri ona da jakitea baliabide gehigarriekin ikastetxe batzuetan errefortzuak egiten ari direla. Ikastetxe batek argi duenean zer egin nahi duen, zertarako egin nahi duen eta hori lortzeko egiten duena nola antolatuko duen, asko da.

Eremuka lan egiten duten ikastetxeen artean, adibidez, sarea sortu da orain, eta pil-pil horretan ezagutza berri bat sortzen ari gara, lorpena da hori, berrikuntza egiteak dakarrelako prozesuan batzuetan gorabehera asko izatea, eta hala behar du, prozesu horren bidez ikasten delako. Zer gertatzen da? Erantzun guztiak nahi ditugula, eta irakasle batzuek erraztasun handiagoa dute ziurgabetasun horretan murgiltzeko, baina beste batzuek ez. Oso legitimoa da eta oso humanoa da, eta horri aurre egiteko lidergoak behar dira, irakasle liderrak; erronka handia daukagu hor. Hezitzaile bat, lankideekin batera prozesu baten jabe egingo dena; hori da berrikuntza egitea. Eta klustro osoarengana iristea, batez ere ikastetxe handietan, erronka izugarria da, kultura aldaketa eskatzen duelako. Ikastetxeetako berrikuntza arduradun batzuk horretan ari dira, formatu dira lidergo horretan, be-



rrikuntza antolatzeko irizpideetan, eta hori da egiten ari garen bidea. Ikastetxe batzuetan aurrerapauso handiak eman dira, eta beste batzuetan poliki-poliki ari dira, bakoitzak bere erritmoa behar du. Autonomia handia eman behar dugu; hasieran formazioak zehatzagoak ziren eta gero eta malguagoak izan behar dute, ikastetxe bakoitzak bere bidea hartu behar duelako, tokian toki. Eskola publikoentzako plan estrategikoak ere bide-orri bat ematen

du; momentu oso inportantea da eta aprobetxatu egin behar da.

■ **Aipatu duzun lidergo horri lotuta, ikastetxeetako zuzendaritzen lidergoa bada Sail honen ardatzetako bat. Klaustroaren gainetik protagonismoa zuzendaritzan jarrita, sistema oso gerentziala sortu nahi izatea kritikatu du hainbat ahotsek.**

Guk ez dugu sistema gerentzial bat

bultzatu, baina jakina formatzen ditugula zuzendaritza taldeak prozesuak ondo eramaten, pertsonen kudeaketan bide egiten, gatazken erresoluzioan... zeren estrategiak behar dituzte, egoera berriei erantzuteko eta erabakiak hartzeko. Gure eredua eraldatzailea eta parte-hartzailea da, eta ez da erraza lantalde oso bat mugitzea helburu jakin baten bila, baina adibide eta praktika oso aurrerakoiak ditugu uneotan gure erkidegoan, eta hala adierazi digute egin ditugun hainbat eta hainbat ponentzian, nazioarte mailan.

■ **Zuzendaritzak ala klaustroak, zeinek egin behar du tira?**

Zuzendari on bat da klaustroarekin lan egiteko kapaz dena, eta ikasleen beharrak erdigunean jartzen dituen. Horretarako behar da artea, ezagutza, jendearekin egotea, sines-
tea eta sinetsaraztea. Klaustroetan dugu erronkarik handiena, baina baita familiekiko hartu-emanen ere. Gizartea gero eta exigenteagoa da, edozein esparrutan, eta bereziki hezkuntzan badago uneotan halako espektatiba bat, horregatik erantzukizun eta anbizio handiko lana da hezitzailearena. Herriko plazan gertatzen dena gure patioan islatzen da eta horrek begirada handia eskatzen du, lider moduan, irakasle zein zuzendari. Baina beti egon behar da talde bat gidatzen, gauzak gertatzen direla ziurtatzen, emaitzak daudela, ongizatea bermatzen dela, familiak proiektuan inplikatu direla. Azken urteetan pauso handi bat eman da eta mentoretzak egiten ari gara: zuzendari batzuk prest daudenak beste zuzendari batzuk gidatzeko. Praktika aitzindariak dira.

■ **Euskal Eskola Publikoa Eraldatzeko Lehen Plan Estrategikoa aipatu duzu lehen. Planak nabarmentzen du, besteak beste, “ekitatea”, “gehien behar dutenek babes gehiago**

jasotzea". Baliabideetatik harago, behar bereziei eta aniztasunari erantzuteko bestelakorik aurreikusten du planak?

Mundu mailako fenomeno da uneotan gero eta premia berezi gehiago detektatzen ditugula, beraz gero eta behar berezi gehiagori erantzun behar diogu ikasgeletan, eta horrek eskatzen du baliabide gehiago jarri behar ditugula ikastetxeetan. Baina inportantea da baita ere behar horiei erantzuteko formazioan eta profesionalizazioan sakontzea, horretan ezagutza espezifikoa duten irakasleak eta figuren kasuan. Daukagun sistema eredugarria dela uste dut, baliabideez ari garenean inoiz nahikoa ez den arren, kasu honetan uste dudalako behar guztiak asetzen eta erantzuten saiatzen garela.

Familia eta erakundeekin ere harremana dugu; azken finean, behar berezien mundua oso anitza da eta ez da gauza bera garun paralisia duen ikaslea eta gela iraunkorrean dagoena [premia bereziko ikasleak baino ez dituzten gelak dira gela iraunkorrak, bost ikasle gehienek gelako], edo behar espezifiko batekin gela arruntean dagoen nerabea. Horri guztiari erantzuteko, adituen profesionalizazioan sakontzeaz gain, irakasle arruntaren edo tutorearen begirada zorrozten ere saiatzen gara. Uste dut irakasleek gero eta begirada zorrotzagoa eta irekiagoa daukatela aniztasunari erantzuteko, eta horretarako ari gara jendea prestatzen, baina arnas luzeko prozesua da.

■ **Gela iraunkorrak edo egonkorak aipatu dituzu, ugaritzen ari dira. Hezkuntza Sailaren apustua zein da, premia berezidun ikasleentzako gela iraunkorrak, ala gela arruntetan ikasle horien inklusioa bultzatzeko neurriak?**

Gure erdua beti izan da ikaslea gela arruntean egotea, inklusioa Euskadiren marka da...



"EBALUAZIOARI LOTUTA, INPORTANTEENA DA HORRA IRISTEKO BIDEA, EZ BETE BEHARREKO ITEMAK. IRAKASLE BATEK ESATEN DIDANEAN, 'HAU BETE BEHAR DUT', NIK GALDETZEN DIOT BIDEAN ZER EGIN DUEN"

■ **Zergatik ari dira orduan gela egonkorak ugaritzen?**

Gela iraunkorrek legez egon behar dute eta lehen aipatu dudan moduan, gero eta premia berezi gehiago detektatzen den neurrian, horrek ere eragina du gela iraunkorren hazkundean. Baina ikasle bat gela iraunkorrera eramateko prozesua oso luzea da eta familiak du azken hitza. Esango nuke gure aholkulariak beti saiatzen direla haurra edo gaztea gela arruntean mantentzen, ongi egon daitekeela ikusten badute, baina azken hitza familiak du, eta gu horretara egokitzen gara. Oso muga dauken kasuistika dira, espezialista ezberdinak behar dituztenak.

■ **Sindikatuarekin lotutako akordioaren gaia ixteko, irakasleak hainbatetan kexu duten burokrasia neurtzeko eta arintzeko batzordea sortzea adostu duzue. Burokrazia handiena non dagoen detektatzea ziurrenik ez da zaila izango; badago ideia zehatzik hori nola arinduko den?**

Behar bereziez, horiek detektatzeaz, gizartearen konplexutasunaz... ari ginen, eta horrek guztiak dakar ikastetxeetan prozedura gehiago ireki beharra. Bada momentua hausnartzeko zer den beharrezkoa eta zer ez,

eta azterketa sakona egitea izango da talde horren egitekoa. Batzuk identifikatuta daude jada, baina beste batzuk ez dakizkigu, eta horretarako ikastetxeetan galdetu behar dugu, haiek dakitelako inork baino hobeto. Eta ikusi behar da baita ere zein prozesu automatizatu daitezkeen eta zeintzuk ez. Beste herrialde batzuetan, adibidez, lortu dute hainbat prozesu arintzea adimen artifiziala erabilita. Hemen ere, pertsonalaren kudeaketan adimen artifiziala erabiltzen ari gara, eta emaitza onak ematen ditu. Gaur egun badaude tresnak hori guztia aztertzeko, pilotajeak egiteko, eta lan zama arinduko duela ikusiz gero, inplementatzeko. Beste hainbat adibide ere badira.

■ **Eskolan konpetentziak lan egin behar dela aspalditik datorren mezua da, baina ikasgela askotan ez da hala egiten. Zerk egiten du huts?**

Konpetentzietan oinarritzen den irakaskuntza arnas luzeko prozesua da. Unibertsitatean lan egiten nuenean bizi izan nuen, eta urte askotako lana izan zen. Lortu behar duzu irakasle guztiak betaurreko berdintsuak jartzeko, berdinak ez, baina berdintsuak, eta adostasuna behar da. Ardatza ebaluazioa da, oso argi daukat, eta hemen leku batzuetan gauza potenteak egiten ari dira horren bueltan. Hamaika itzulipurdi eman dituzte, agian lau urte daramatzate inplementatzen, baina emaitzak onak dira. Adibide bat aipatuko dizut: konpetentzietan oinarritutako halako txosten erraldoi bat idazten hasi ziren gurasoentzako buletinean...

■ **Orain gertatzen ari dena ikastetxe ugaritan...**

Tira, kasu gutxitan, eta horrela bada, ni pozik, horrek gero eramaten zaituelako beste leku batera. Adibidera bueltatuta, gurasoentzako txosten luze horiek bilakatu dira zerbait askoz ere jasangarriagoa, gurasoekin



negoziatu ostean zer jaso nahi duten, zerk laguntzen dien seme-alabaren bilakaera ulertzen eta kokatzen. Hori da ebaluazio hezigarria, eta horra heltzeko behar dira urteak, behar da formazioa, lidergoa, bidean hanka-sartzeak, eta adostasuna. Klaustro guztia horretan sartzea lorpen izugarria da, horretan sinestea, ez baduzulako sinesten zaila baita. BeAtar liderrek [beAtarrak dira ikastetxeko berrikuntza arduradunak], zuzen-dari liderrek, irakasle liderrek hori lortzen dute.

■ **Eta klaustroak bat ez egiteko arrazoiak zein dira, zure ustez? Desadostasuna? Lan zama? Ezjakintasuna?...**

Ez da ados ez daudenik, da partekatu behar dituztela irizpide komun batzuk, eta batzuetan ari gara ikasle bera ebaluatzen betaurreko ezber-

dinekin. Elkar-ekintza eta eztabaida asko behar da adostasunera heltzeko. Eta gero konpetentzia ebaluatuko da eta batzuetan kalifikazio bat eramango du, baina balioa prozesuan dago. Ikastetxe onak, funtzionatzen ari direnak, horretan murgilduta daude, eta ezagutu behar dituzue. Ikastetxe publiko batzuk buru-belarri sartu dira horretan azken hiru urteetan, eta emaitzak onak dira.

■ **Lana eskatzen du.**

Pazientzia behar da eta ikuskariei eskatu diegu patxadaz hartzeko, denbora uzteko. Apurka-apurka, birlatzen ari garena lortzen da, baina ikastetxe bakoitzak bere bidea egin behar du.

■ **Konpetentzietan oinarrituta, gurasoek jasotzen duten ebaluazio buletina sinplifikatzeko**

adibide bat eman duzu.

Irakasleek egin beharreko ebaluazioa sinplifikatzeko beharra ere ikusten duzu? Izan ere, hainbat irakasle kritikatzen du ikasgai bakoitzean ebaluatu behar dituztela konpetentzia ugari, item asko eta sarri interpretatzen zailak direnak.

Gauza bat da curriculum eta bestea ikastetxe bakoitzak darabilen ebaluazio eredua, eta eredu ezberdinak daude. Nik ikusi ditut eredu ezberdinak, modu ezberdinean gauza bera esateko.

■ **Baina itemak molda daitezke?**

Denak ez, baina batzuk bai. Baina inportanteena bidea da, horra iristeko bidea, ez bete beharreko itemak. Irakasle batek esaten didanean, "hau bete behar dut", nik galdetzen diot bidean zer egin duen, ikasleekin eta

irakasle taldearekin zer egin duen. Hor dago ebaluazio hezigarria. Begirada estu eta itxia baino emankorra goa eta motibagarriagoa da begirada zabaltzea.

■ **Gutziz ados, baina gero bete egin behar da ebaluazio orria...**

Eta hori ikastetxean erabakiko dute nola egin. Curriculumak dio zein konpetentzia ebaluatu behar diren, ikastola batzuek koaderno batzuk dituzte, beste ikastetxe batzuek beste eredu batzuk... eta curriculumak oinarri eta irteera-profila helmuga, ikastetxe bakoitzak bere erabaki propioak har ditzake. Praktika onak ezagutarazi behar ditugu, piztuta dauden ikastetxeen praktikak, eta animatu behar ditugu ikastetxe guztiak bide hori egitera, nahiz eta hasieran bertigo apur bat eman dezakeen.

Azken urteetan hausnarketa handia egon da, eta hausnarketa dagoen gorabeherak daude, eztabaida, desadostasunak, ezezkoak... Hori guztia humanoa da, baina zientziak dioena aintzat hartzen badugu, esaten digu ebaluazio hezigarriaren helburua ikaslea halako mailara eramatea dela marko jakin bat martxan jarrita. Berritzegunetik saiakera handia egin dute ikastetxeetan eskaintza indartsua egiteko, lantalde bat osatuta.

■ **Praktika onak partekatzearen garrantzia eta Berritzeguneen formazioa aipatu dituzularik, berrikuntzaz arduratzen diren beAtar batek baino gehiagok adierazi dit formakuntzak huts egiten duela, oso teorikoa dela, praktika onak apenas daudela, zerbait berriaren gainean ez dagoelako oraindik praktika onik.** Zenbat beAtarrek esan dizute hori? Guztira 900 beAtar inguru ditugu, pentsa zelako aniztasuna dugun. Eta galderari erantzunez, baditugu praktika onak, bide benetan bikaina



"BEATARRAK ZAMATUTA? IKASTETXEETATIK JASOTZEN ARI GARENA FEEDBACK POSITIBOA DA: 'HAU BEHAR GENUEN'"

egin duten pertsonak. Pasako dizkizut adibideak. Azken bi urteetan, ikerketa aplikatua egitea sartu dugu, unibertsitateetako ikerketa taldeak ari dira prozesu batzuk aztertzen eta ea zein inpaktu duten neurtzen. Adibidez, konplexutasun handiko ikastetxeetara bideratuta dagoen Eraldatzen berrikuntza proiektuaren inpaktua zein den neurtzen ari gara, ez bakarrik ikaslearen maila akademikoa, baita ere prozesu horrek zein ekarpen egin duen ikastetxearen kulturen, gurasoekin duten hartu-emanen, zuzendarien lidergoan... Zuzendariak ikusi ditugu, konplexutasun handiko ikastetxea handi geratzen zitzaizela sentitzen zutenak, Eraldatzen programari esker hazi egin direnak eta berrikuntza egiten hasi direnak.

BeAtarrak ere sartu ditugu ikastetxeetan, existitzen ez zen figura bat, ordu pila batekin eta espresuki berrikuntzarako. Horrek behar du koka-pen bat, diseinu bat, funtzioak ondo zehaztea, praktikara eramandakoak huts egin dezakeela aintzat hartzea... eta hala gertatu zen hasieran. Gaur egun, niretzat lorpena da ikastetxe gehienetan oso barneratuta dute la beAtarraren funtsa eta funtzioak (nahiz eta malgutasuna dagoen funtzio horietan, ikastetxe bakoitzaren hautuen arabera), eta berrikuntza sena duten ikastetxeetan bikain aprobetxatu dute figura hau. Bikain. Eta gainera oso modu dibertsifikatuan. Oso lotuta dago ikastetxe horretan dagoen lidergoarekin eta kulturare-

kin, eta egon daitezke irakasleak prest ez daudenak, baina hori ere humanoa da. Gure erronkarik handiena da sare on bat sortzea, praktika on horietatik ikasteko, baina ez dago errezetarik. Gakoetako bat da esperientzia hori egin nahi izatea.

■ **Berrikuntzarekin bat egiten duten beAtarren artean, baina, bai jaso dut halako sentsazio bat, berrikuntzaren zama guztia euren gain jarrita ezin iritsi dabilatzala hainbatetan, eta gauzak azkarregi implementatu nahi direla.** Azkarregi inplementatu, zer?

■ **Eremuka lan egitea, adibidez. Eta diote: lehen Berritzeguneek klaustro osoa formatzen zuten, implementatzen lagundu...**

Hori toki batzuetan, ez guztietan. Nik benetan sinesten dut eskola publikoa momentu historiko baten aurrean dagoela. Etxe honetan sartu aurretik ere ezagutzen dut eskola publikoa, gainera eskolak bisitatzen ditut eta ezagutzen dut zer daukagun. Jendea inoiz baino piztuago dagoela uste dut. Pandemia bat bizi izan genuen, gogorra izan zen, eta erakutsi zuten hemen dagoela irakasle talde bat edozein egoerari aurre egiteko prest. Ikastetxeak eredugarriak izan ziren.

Hezkuntzan gero eta eskaera gehiago ditugu gizartearen aldetik, gero eta gatazka gehiago, eta dauzkagu figura batzuk ikastetxeetan hainbatetan heroiak direnak, egoera oso konplexuei erantzun behar dietelako, gainera haurrekin, nerabeekin.

■ **Baina beAtarrak batzuetan erreta eta zama askorekin sentitu daitezkeela uste duzu?**

Nik ez dut hori jaso. Egon daitezke batzuk sentsazio horrekin, baina berriz diot, 800 beAtar baino gehiago daude, eta ikastetxeetatik jasotzen ari garena hain justu feedback positiboa da: "Hau behar genuen, beharrezkoa zen eskola publikoan halako



apustua egitea". Eta beste salto bat: dagoeneko pentsatzen ari gara zer egingo duten mentore [aholkulari] linguistikoeek. Hori ere figura berri bat da, ez da Katalunian edo Galizian existitzen, guk adosturiko figura da. Datorren ikasturtean hasiko gara poliki-poliki konplexutasun handiko ikastetxeetan. Gero ikastetxe guztietan sartuko dugu, eta Iralen [ikastetxeetako langileak euskalduntzeko programa da Irale] badago lantalde handi bat figura berriaren formakuntzari eta planifikazioari ekiteko motibatuta. Hori da aldaketa, hori da berrikuntza, eta dator une batean zeinetan migrazio mugimendu handia dagoen, eta horrek tentsioa sortzen du ikastetxeetan.

Murgiltze eredua berrasmatu behar dugula askotan esan dut, ez bakarrik ikasle etorri-berriak beste herrialde eta kultura batzuetakoak direlako, baita ikasleek beste profil eta behar batzuk dituztelako ere. Eta baliabideak jarriko dira horretarako.

■ **Hizkuntza mentoreez gain, HIPI (hizkuntza errefortzurako irakasleak) eta EUSLE (hizkuntza indartzeko programak) ordu**



"MATRIKULAZIO IRIZPIDE BERRIEK EZ DUTELA SEGREGAZIOA AMAITZEKO BALIO, PENA EMATEN DIT IKASTOLEN BUELTAKO HAINBATI HALAKO ADIERAZPENAK ARINTASUN HORREKIN EGITEN ENTZUTEA, OSO GAI SENTSIBLEA BAITA"

"IKASTOLA BATZUETAN UME GUTXIAGO BADAGO, AGIAN DA UMEAK EZ DAUDELAKO; HORREK EZ DU ZERIKUSIRIK MATRIKULAZIO IRIZPIDEETAN EGINDAKO ALDAKETEKIN"

gehiago adostu dira akordioan. Horretaz ari zara?
Hori da.

■ **Beste herrialde batzuetatik etorritako ikasleek ari zarela, matrikulazio eredu berria jarri zuen martxan 2023an onarturiko**

EAEko Hezkuntza Legeak, baina bai eskola publikoaren bueltako eragileek, bai Ikastolen Elkarteak, adierazi dute matrikulazio eredu berriak ez duela segregazioa amaitzeko balio eta ez dela helburu hori lortzen ari.

Nik datuak ditut eta ez dut horrela baloratzen. Batetik, ez daukagu matrikulazio eredu berririk, duela bi urte egin genuena da sarbidean irizpide berri batzuk ezarri, argi izanda emaitzak oso epe luzera etorriko direla, eta ikusten ari garena da bereziki matrikula bizian duela eragin handiagoa [behin ikasturtea hasita, urtean zehar matrikulatzen diren ikasle berriak dira matrikula bizia]. Pena ematen dit ikastolen bueltako hainbati halako adierazpenak arintasun horrekin egiten entzutea, oso gai sentsiblea baita. Nik uste gure herri honetan inoiz baino kontzientzia handiagoa dagoela benetan tokatzen zaigula segregazioari aurre egitea. Eta hori ez da matrikulazio irizpideekin konpontzen, tartaren zati txikitxo bat da hori, beste neurri batzuk ere jarri ditugu, baina segregazioaz ari garenean ari gara kalitateaz, berrikuntzaz; eta nire ustez, matrikulazioan emaitza onak dituzten ikastetxeak hor kokatzen dira: berrikuntzan, proiektuan, aldatetean...

Demografia aldaketa etorri da, aurreikuspena da datozen ikasturteetan ume gutxiago izango dugula matrikulatzeko, eta ikastola batzuetan ume gutxiago badago, agian da umeak ez daudelako, guraso batzuek agian erabaki dutelako beren seme-alabak beste norabait eramatea, eta horrek ez du zerikusirik matrikulazio irizpideetan egin diren aldaketekin. Lehen aipatu moduko adierazpenak gizarteratzea kontu handiz egin behar da, ez dugu segregazioa urte batetik bestera konponduko, matrikulazioa ekintza bat da, baina beste hainbat ekintza osagarri daude eta egongo dira. Adibidez, hainbat ikastetxetan metodologiari lotuta egiten

ari direna ere segregazioari aurre egitea da.

Beste adibide bat: ikastetxeen arteko fusioak. Administrazioetik ahalmena dugu ikastetxe publikoetan mugimenduak egiteko, itunpekoetan zailagoa da (aholkatu dezakegu, baina ez dugu ahalmen administratiborik erabakiak hartzeko). Bada, egin ditugun fusio prozesuetan, funtsa izan da segregazioa gainditzea, eta Gasteizen baditugu adibideak: bi ikastetxe elkarren alboan, bata oso segregatua eta bestea segregazio gutxiarekin edo gabe. Horrek ez dauka zentzurik. Horregatik, proposatu genien bateratu eta hezkuntza proiektu on bat lotzea, bertako zuzendariekin eta gero gurasoekin prozesu bat eginda.

■ **Baina horrek, aldi berean, ikastetxe publiko gutxiago dakar.** Ez. Zergatik?

■ **Fusionatzen duzunean, eskola bat desagertzen delako.** Baina ez gara ari fusionatzen, integrazioaz ari gara.

■ **Baina ikastetxe bat gutxiago egongo da.** Batetik, ez daude umeak, jaiotzetasa beherantz ari da. Eta bestetik, banaketa artifizial bat egiten ari gara, gurasoen erabakia tarteko, eta beharrezkoa da komunitatea elkartzea hausnarketa batean. Hori ez da eskola gutxiago izatea, hori da kalitatezko proiektuen aldeko bidea egitea.

■ **Baina eskola publikoei baino eragiten ez dienez (aipatu duzun moduan, administrazioak ikastetxe publikoetan baino ez duelako esku hartzen), ikastetxe publikoen kopurua da murrizten dena.** Itunpeko ikastetxeetan ere etorriko dira horrelakoak, beraiek beraien hausnarketak egingo dituzte. He-

mendik urte batzuetara, ikastetxe batzuek itxi egingo dituzte ateak, batzuk ixten ari dira dagoeneko.

■ **Zuzendari eta gurasoekin egindako fusio prozesuak aipatu dituzu, baina benetako prozesu parte-hartzailerik gabe aurrera eramandako bateratzeak kritikatu ditu fusionaturiko ikastetxe batek baino gehiagok.** Burutu diren prozesu guztiak ondo joan dira. Horrek ez du esan nahi guraso batzuk kritiko agertu ez direnik.

■ **Berriki, adibidez, 2026ko ikasturterako fusionatuko diren Gasteizko San Ignazio eta Adurtza ikastetxeetako guraso elkarteek elkarretaratzea egin dute, prozesuaren informazioa falta zaiela eta parte hartu nahi dutela salatzeko.**

Ikastetxe horietako zuzendaritza taldeek bi urte daramatzate elkarriketetan, eta orain beste fase batean sartuko gara eta parte hartu ahal izango dute familiek. Baina lehengo zuzendaritza taldeak ados ez badaude, oso zaila da prozesua abia-

tzea. Urte askotako prozesuak dira eta gakoa hezkuntza-proiektua da.

■ **Matrikulaziora bueltatuz, kuriosoa da: Ikastolen Elkartea kexu da haien matrikulazio kopuruak mugatu egin direlako, eta hainbat eskola publikotatik (Bermeon kasu) kritikatu dute gain-kontzertazioa baimentzen dela itunpeko batzuetan.**

Guk ez dugu gain-kontzertatzen. Araudi bat daukagu, eta diozun moduan, bi toki ezberdinetatik kezka kontrajarriak adierazten direnean, erdibidean gauden seinale. Eta erdibidean dagoena da gure erkidegoan kalitatezko proiektu bat edukitzea eta segregazioari aurre egitea. Biak datoz eskutik. Normala da urduritasuna egotea; segregazioari aplikatzen zaizkion irizpideek zonalde batzuetan inpaktu handiagoa daukate, beste batzuetan txikiagoa, ez da matematika hutsa, prozesu bat eta apustu bat da, adituekin batera egingdako marko bat. Errazena da ezer ez egitea, baina har dezakegu bide hori, gaur egun dugun segregazio tasarekin? Erantzukizun bat dauka-



gu administrazio moduan, gizarte moduan, eta horretara jarri behar dugu, bestela etorkizunean damutu egingo gara.

■ **Matrikulazio bizia modu gardenago, orekatuago eta bidezkoagoan egitea eskatu du Ikastolen Elkarteak. Gauza bera entzun diot eskola publikoko zuzendaritza bati baino gehiagori, behin ikasturtea hasita ikastetxe batzuetara ikasle gehiago bideratzen direla iritzita. Matrikula bizia inoiz baino orekatuagoa dago.**

■ **Aldiz, erreportaje baten harira Gasteizko eskola publiko bateko zuzendaritzak esan zidan arauz jarrita dagoen mugaz gaindi ari zirela matrikulatu berriak jasotzen ikasturtean zehar...**

Aginduz jasota dauden irizpide batzuen arabera aplikatzen da matrikula bizia, eta eskolaratze batzordeek lan handia egiten dute. Baina lehen esan dudana bezala, hau ez da matematika hutsa: begiratu behar duzu zaurgarritasun tasa eta begiratu behar duzu familiaren nahia, araudia kontuan hartuta. Udalerri mailan jar daitezke bulegoak hori egiteko? Bai, legean dago eta gure ibilbide orrian dugu. Hemen Gasteizen, udalak oso ongi egiten du, gurekin elkarlanean: informazioa eskatu eta etorri berriei aholkatzen die.

Kontuak kontu, eskolaratze batzordea lantalde tekniko bat da, baina gero informazio hori aplikatiboan sartzen da eta aplikatiboak ikusten du ikasleak zein ikastetxera joan behar duen. Horrek esan nahi du orekatuta dagoela zonalde guztietan? Ez, batzuetan desorekak egon daitezke, eta urtero goaz ajustatzen, administratibotik hori da gure lana, hobekuntzak identifikatu eta aplikatu. Ez da gauza bera Bilbo edo Gasteiz, Barakaldo edo Ordizia. Oso egoera ezberdinak dira.



“EGIN DITUGUN FUSIO PROZESUETAN, FUNTSA IZAN DA SEGREGAZIOA GAINDITZEA. EZ GARA ARI FUSIONATZEN, INTEGRAZIOAZ ARI GARA. ETA HORI EZ DA ESKOLA GUTXIAGO IZATEA, HORI DA KALITATEZKO PROIEKTUEN ALDE EGITEA”

Bi momentu daudela uste dut. Batetik, segregazioari aurre egiteko abiatu dugun politika hau guztia, oraindik tanto txiki bat; eta bestetik, etorriko dena, eta horretarako lanean jarri behar dugu. Laster martxan jarriko dugu segregazioari aurre egiteko ituna, eta hori topo egingo dugu denok, baldintza batzuk jarri beharko ditugu. Ikastetxe guztiak geratuko dira gure mapan? Ba guzti-guztiak ez. Ikastetxe batzuk uztartu egingo dira? Bai. Eta hori ona da, proiektua indartu egiten delako, baina ondo egin behar da, pertsonak atxiki behar dira, proiektura atxikitzen ez badira egonezina sortzen delako.

■ **Matrikula biziari aurre egiteko itunpekoetan baliabide gehiago iragarri dituzu berriki.** Irakaskuntza publikoari lotuta sinatu berri dugun hitzarmenean, hizkuntza errefortzuak indartu egingo ditugu eskola publikoan (lehen hiru ikasleekin hizkuntza laguntzailea jartzen zen, orain birekin jarriko da). Bada, oso segregatuta dauden itunpeko ikastetxeetara ere eraman behar dugu hori. Aipatu dugun Eraldatzen proiektuaren sarean ere sartu dira konplexutasun handiko itunpeko ikastetxe batzuk. Eta ikasturtean

zehar ikasle berriak iritsi ahala eskola publikoan baliabideak gehitu daitezkeen bezala, itunpekoetan berrikuntza juridikoa egiten ari gara, zeren matrikula biziari lotuta ez baditugu ikastetxe publikoak zamatatu nahi, [baliabide] esleipenak hobetu egin behar dira itunpekoetan ere.

■ **Zaurgarritasun indizea (ikaslearen ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartzea helburu duena eta matrikulazioa bideratzerakoan aintzat hartzen dena) kalkulatzeko formula ez dela egokia esan berri du Ikastolen Elkarteak (ez da hori esan duen eragile bakarra). Formula berri bat garatzeko eskatu du.**

Zaurgarritasun indizea lehenengo minututik kritikatu da. Ikastolen Elkarte hainbatetan izan da ISEI-IVEIn [Irakas-sistema ebaluatu eta ikertzeko erakundea], teknikari adituen azalpena entzuten, eta hala ere ez ditu formulak konbentzitzen. Hori bai, zaurgarritasun indize horren araberrako baliabideak esleitzen zaizkienean inor ez da kexatzen. Formula horretan urtero egokitzapenak egiten dira, tresna bat da eta ez du zertan betirako izan, beste tresna batzuk ere aztertzen ari gara. Kataluniarrek adibidez, beste tresna bat erabiltzen dute eta arazoak dauzkate (batzordea ebaluazio-detekzioak egiten dituzte, zerbitzu sozialak eta abar kontuan hartuta), ez dagoelako formula magikorik. Baina tresnak behar dira, eta zaurgarritasun indizeak erakutsi du funtzionatzen duela, korrelazioa dagoela baliabideen esleipenean aplikatzen denean, baina hori ez da esaten.

Formula berrikusten eta berrikuntzak sartzen goaz, hiru urteotan aldaketak egon dira galdetegian eta ponderazioan, ez direlako item isolatuak: etxean tableta al daukazu galderaren erantzuna, adibidez, ezin da bere horretan modu isolatuan ba-

loratu, informazio hori gurutzatzen da eta ponderatzen da beste erantzun batzuekin. Sinetsi behar dugu teknikariek zerbait badakitela.

■ **Zenbateraino dago bizirik ikastetxeen arteko lehia, EAEn gaur egun dugun sare banaketa eta jaiotze-tasaren beherakada tarteko? Horri ikastetxeen autonomia dekretua gehituta, lehenengo eta bigarren mailako ikastetxeak ditugu EAEn?**

Nik ez dut horrela ikusten. Ikastetxe ezberdinak ditugu sare guztietan, aniztasun handia. Hausnarketa serio bat egin behar dugu: zer da ikastetxe... ez ideala, ez delako existitzen eta gainera oso subjektiboa izan daitekeelako, baina zer da ikastetxe eraginkor bat izatea, kalitatezko eskaintza izatea XXI. mendean? Datu asko dugu eta hainbat kategoria mahai gainean jartzea eta horien inguruan hausnartzea komenigarria dela uste dut. Baditugu ikastetxe batzuk berrikuntza asko egiten, emaitza oso onekin, eta baditugu beste batzuk hainbeste mugitzen ez direnak. Zergatik mugitu behar dute eta nola mugiaraziko ditugu? Hori da galdera.

■ **Sare guztiak berdin sartzen dituzu hor?**

Bai, azken finean denak dira ikasleak, eta niri berdin zait ikaslea Zumaiako ikastolan edo Bilbo Handiko Unamuno institutuan dagoen. Ikasleak dira, behar batzuk dauzkate, eta pertsona horiek etorkizunerako prestatzen ari gara. Gehiago hitz egin behar genuke adibidez irakaslearen profilaz, zeren irakaslearen profilaz asko hitz egiten da, baina kostatzen da irakaslearen aritzea. Zelan erantzuten diogun ikasleari dituen beharrak asetzeko, hor dago hausnarketa, berdin zait zein saretan dagoen. Egia da identitate eta hautu ezberdinak daudela, baina misioa konpartitua da: ikasleak etorkizunerako prestatzea.



“ZAURGARRITASUN INDIZEA LEHENENGO MINUTUTIK KRITIKATU DA. HORI BAI, ZAURGARRITASUN INDIZE HORREN ARABERAKO BALIABIDEAK ESLEITZEN ZAIZKIENEAN INOR EZ DA KEXATZEN”

■ **Hitz egin dezagun teknologiaz. Jaurilaritzak ikastetxe bakoitzaren gain utzi du erabakitzea ikasleek eskolan mugikorrak sartu ditzaketen ala ez, nahiz eta Altxa Burua guraso elkarteak iritzi dion denentzako dekretu orokor bat atera beharko litzatekeela mugikorrak debekatuz, beste erkidego eta lurraldeetan egin den moduan. Mugikorrak ikasleengan duen inpaktuaz kexu dira gurasoak, baina zuk esana da: “Ez dago erabilera horrek duen eraginari buruzko ebidentzia argirik”.**

Nik esan dut, baina da adituek esaten dutena...

■ **Baina aditu askok ere badio mugikorrak arretan, menpekotasunean... eragina duela...**

Ez dago ebidentzia zientifikorik adierazten duenik hori dela arrazoia, aldagai asko dago tartean.

■ **Baina horietako bat bada mugikorra, ezta?**

Izan daiteke, baina izan daiteke hori eta izan daitezke beste batzuk. Goazen muinera, honetaz gehien ikeritu duten pertsonak diotenera. Debekuak benetako ongizatea dakar, benetako aldaketa dakar? Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehie-

netan mugikorrak debekatuta daude, beraz zein da kezka? Kezka da gizartean daukagun erronka bat dela, ez da ikastetxeetan daukagun erronka.

■ **Baina gizartean gertatzen dena ez da eskolan islatzen?**

Mugikorrak nonbait kontrolatuta badaude, ikastetxeetan da. Nik uste dut erronka gizartean dagoela eta ikastetxeetan formatu egin dira erabakiak hartzeko, kontsentsuak adostu dituzte gurasoei, baina irakasleen kezka ez da mugikorraren erabilera ikastetxeetan...

■ **Ados, beste adar batetik helduko diot orduan gaiari: eskoletan teknologia sartzeko azken urteetan egin den bidearen inpaktua neurtzeko eta digitalizazio prozesua berraztertzeko asmorik badu Hezkuntza Sailak, Kataluniako Generalitateak iragarri duen gisan?**

Digitalizazioari dagokionez, aniztasun handia dago gure ikastetxeetan, hori hasteko...

■ **Baina Chromebookak, adibidez, oso orokortuta daude gehienetan.**

Egin dezagun azken urteetako irakurketa. Pandemia bat pasatu genuen, eta kritika izan zen ikastetxeetan ez zegoela gailurik. Sekulakoa egin zen horri buelta emateko, eta txalotu egin zen. Guk ikastetxeetan zerbait egin badugu izan da formatu, ikastetxeek gailu horiek modu on batean erabiltzeko. 2021etik honako estrategia digitala horretan zentratu da, irakasleen konpetentzia digitala garatzeko hainbat eta hainbat formaziotan.

■ **Generalitateak, nioen moduan, iragarri du eskoletako digitalizazioa ebaluatu eta berraztertuko duela eta Esther Niubó Hezkuntza kontseilariak**

aurreratu du irizpide batzuk jarriko dituztela, adibidez proposatu du 6 urte bete arte teknologia digitalik ez erabiltzea ikasgeletan.

Bat: Katalunian ez da inongo erabakirik hartu. Eta bi: ikastetxeetan erabaki horiek aspaldi hartu dira. Sentzazioa daukat goazela eredu batera non debekuak agintzen duen, baina irakasle eta zuzendariak oso argi daukate noiz eta zertarako erabiltzen duten teknologia. Koadernoak eta arkatzak jarraitzen dute gure ikastetxeetan, noski baietz, baina gure betekizuna ere bada ikaslea konpetentzia izan dadin eremu digitalean, eta hori ez da bakarrik gailuen erabilera eraginkorra, gauza asko dira.

■ **Ados nago, ez dut uste inork ukatzen duenik ikasleek konpetentzia digitala garatu behar ez dutenik, kontua da**



“HAUR ETA LEHEN

HEZKUNTZAKO IKASTETXE GEHIENETAN MUGIKORRAK DEBEKATUTA DAUDE, BERAZ ZEIN DA KEZKA? KEZKA DA GIZARTEAN DAUKAGUN ERRONKA BAT DELA, EZ DA IKASTETXEETAN DAUKAGUN ERRONKA”

hainbatetan ez ote den modu digitalean egiten, konpetentzia digitalaren aitzakian, digitalki egin beharrik ez dagoena ere.

Ados, ulertzen dizut, baina PDF bat hartu eta gailu batean zintzilikatzea

ez da digitalizazioa. Nahaste-borraste handia dago, eta iruditzen zait medietatik ahalegina egin behar duzuela gauzak ondo azaltzeko.

■ **Nahaste-borrastea ez ote duten ikastetxeek eurek, bakoitzak zer ulertzen duen digitalizazio hitza entzunda...**

Hor dago koska, eta hor dago gure lana, aholkularitza on bat ematea. Proiektu digital onek zerbait ikasi badute, hain justu hausnarketa hori da: noiz eta zelan erabili teknologia. Eta ikasleak etorkizunerako heztean dugun erantzukizunari lotuta, adibidez, indar handia jartzen da sare sozialen erabileran, kristoren kontzientziazioa dago ikastetxeetan. Guk zerbait ongi egin badugu da digitalizazio taldea eta elkarbizitza taldea elkarlanean jartzea. Duela gutxi gure praktikak ikustera etorri dira, eta adierazpen hain negatiboak egiten



direnean zalantzan jartzen da gure ikastetxeetan egiten ari diren lana, irakasleek, esan bezala, oso argi baitaukate teknologia noiz erabili eta noiz ez. Ikastetxeetan oso kontrolatuta daude gure ikasleak, baita nera-bezarora iristen direnean ere. Nire galdera da: zelan egiten diogu aurre gizarte moduan honi guztiari?

■ **Mikel Basabek, ARGIAko** bere iritzi artikuluetako batean, berriki gogoratu du ebaluazio diagnostikoetan DBHko ikasleen euskara gaitasuna ezagutzeko erabiltzen zen neurgailuetako bat, ahozko konpetentzia, neurtzeari utzi zitzaiola 2018an. **Zergatik?**

Neurketak egiten jarraitu da, baina bakarrik azpi-laginekin eta taldeka, lan handia delako halako neurketak



SENTSAZIOA DAUKAT GOAZELA EREDU BATERA NON DEBEKUAK AGINTZEN DUEN, BAINA IRAKASLE ETA ZUZENDARIEK OSO ARGI DAUKATE NOIZ ETA ZERTARAKO ERABILTZEN DUTEN TEKNOLOGIA

egitea, ezinezkoa da ikastetxe guztietan egitea. Eta datu batzuk badauzkagu...

■ **Baina ez dira publiko egiten.** Ez, erabiltzen dira beste helburu ba-

tzuetarako, ikastetxeekin lantzeko. Hainbat hipotesi ateratzeko balio dute neurketa horiek, eta adibidez, ikusten ari gara (ikusi ditudan azken datuak aintzat hartuta behintzat) korrelazio handia dagoela ulermenaren eta mintzamenaren artean.

Arlo honetan berrikuntza bat egin dugu: ikastetxe batzuetan irakasleak prestatu ditugu ahozko neurketa eurek egiteko, kultura hori sortu asmoz.

■ **Eta ebaluazio diagnostikoen emaitzak ematen diren gisan, ez litzateke interesgarria izango ahozko neurketa hauen emaitzak ere publiko egitea?**

Egin daiteke, bai, zergatik ez. Kommentatu dizudanak eman zidan arreta: korrelazio handia dagoela irakurmenaren eta mintzamenaren



artean, eta irakurmenaren emaitzak bai argitaratzen ditugu ebaluazio diagnostikoetan.

■ **Irakurmenaz ari zarela, aurtan aurkeztu duzun Ikasleen Emaitzak Hobetzeko Estrategia Integralean, bereziki irakurmena, matematika eta gaitasun zientifikoa indartzeko errefortzu-programa iragarri duzu. Testuak ulertzeko zailtasunak areagotzen ari dira haur eta gazteen artean?**

Baietz esango nuke, joera bat bada-goela, aldagai ezberdinek eraginda. Estimulu asko dituzte gaur egun, adibidez. Ez nuke esango gutxiago irakurtzen denik, ezagutzen ditugu praktika onak, baina mundu birtuala bilakatu da mundu paralelo bat gure nerabeentzat eta hor ordu asko sartzen dituzte. Lotuta dago lehen aipaturikoekin: zelan mugatu, zelan kontzientziatu, zelan ekarri natura, elkarriketa batera... Irakurketa trebetasunetatik harago, irakurzaletasuna bultzatzea ere gakoa da, liburu bat hartu eta patxadaz gustura irakurtzen egotea. Zentzu horretan, badaukagu irakurzaletasuna sustatzeko proiektu potente bat, oraindik aurkeztu ez duguna, oso polita: DBH-ko hainbat ikastetxek hartu dute parte, ikasleek liburuak irakurtzen dituzte eta hausnarketak eta elkar-ekintzak partekatzen dituzte, gamifikazioari lotuta. Ikastetxe gehiagotara zabaldu nahi dugu orain.

■ **Jantoki propioa ikastetxean, beraiek kudeatua; badira horrela funtzionatu nahi duten eskolak, baina EHIGE gurasoen federazioak salatu du ikastetxeak catering-enpresen bidezko zerbitzua ematera derrigortzen dituela Eusko Jaurlaritzak 2024an argitaratu zuen agindua. EHIGEr azaldu nion dekretu horretan ez dela inongo aldaketarik egon ereduari. Dekretua modifikatu behar izan genuen, legedia aldatu zelako**



IKASLEEN ARTEAN TESTUAK ULERTZEKO ZAILTASUNAK AREAGOTZEN ARI DIRELA ESANGO NUKE. MUNDU BIRTUALA BILAKATU DA MUNDU PARALELO BAT GURE NERABEENTZAT ETA HOR ORDU ASKO SARTZEN DITUZTE

eta legedia betetzeko jantoki-kuotekin lotutako irizpide bati erantzun behar zitzaiolako, besterik ez.

■ **Baina Eusko Legebiltzarrak 2019an onartu zuen catering-enpresetatik kanpo beste era batera funtzionatu nahi duten ikastetxeentzako jantoki eredu berri bat arautzea...**

Eta horretan ari dira...

■ **2019tik denbora asko igaro da, ez?**

Bai, baina dekretuaz galdetzen badi-dazu, azpimarratu behar da formalismo administratibo hutsa dela eta ez duela inongo aldaketarik ekarri.

■ **Eta eredu berriari dagokionez?**

Pilotaje batzuk egiten ari gara, sukalde propioa nahi duten ikastetxe batzuen eskaria erantzuten ari gara, berriak diren eraikin eta proiektuetan ere sartu ditugu... eta aurkitu dugu eredu bat oso interesgarria eta hori aztertzen ari gara, eragileekin elkartuko gara. Bidea egiten ari gara, baina hemen inportanteena da jantokietan zer gertatzen den eta zein heziketa mota egiten dugun bertan.

■ **Baina lotuta dago, ezta? Jantokia catering-enpresak edo ikastetxeak berak eramatea ez da gauza bera.**

Ikusi ditut catering-enpresekin lan egiten duten ikastetxeak oso ongi funtzionatzen dutenak, monitoreak prestatuta daudelako, eta beste batzuk funtzionatzen ez dutenak. Denetarik dago.

■ **Bukatu dezagun osasun mentalaz hitz egiten, berebiziko gaia baita. Curriculum sozioemozionala ezartzeko programa eta ZIUR proiektua duzue martxan, 42 ikastetxetan pilotatzen. Zertan datzan eta proiektu pilotuaren emaitzarik aurreraterik bai?**

ZIUR proiektuak fokua batez ere jartzen du jokabide suiziden prebentzioan eta esku-hartzean. Ezagutza handiko profesionalen lantalde bat dago, gai honen inguruan aurrez ere formazio sakonak eman dituztenak gure ikastetxeetan, eta orain ikerketa egiten ari dira ikusteko zein diren arrakastarako gakoak prebentzioa egiterakoan. Horretarako, hainbat ikastetxe ari dira parte hartzen, gurasoak barne. Inkestak egin dituzte, behaketak, tutore eta ikasleekin elkarriketak, eta hortik ateratako ereduak ikastetxeetan eskalatuko ditugu ondoren. Baina bizpahiru urte behar ditugu, arrakastarako gakoak ondo balidatu eta ondoren ikastetxeetarako tresnak diseinatu eta inplementatzeko.

Beharra dago, gizarte osoan dagoen errealitatea da, lehen tabua zen gai baten bueltan lan egiteko sentsibilitate handia dago, eta gure tutoreak horretan ondo prestatzea garrantzitsua da. Beraiek ez dira eremu klinikoan sartzen, hori ez da beraien lana, horretarako dauzkagu profesionalak, baina ikuspegi hezitzailetik jakitea zein tekla ukitu, oso inportantea da momentu kritiko batean. Espektatiba handiak ditut proiektu honetan. ●



ARGIA

BABESTEKO

ARRAZOI

1. KAZETARITZA INDEPENDENTEA

Langileona delako hedabide hau, ez inolako banku, multinazional edo alderdirena.

2. EUSKARATIK ETA EUSKARAZ

Gure hizkuntzak funtsezko dituelako euskara hutsean funtzionatzen duten proiektuak.

3. HEDABIDE DIGITALA ETA PAPERKOA

Egunero sarean aktualitatea jorratu eta aldizkarian hats luzeko kazetaritza lantzen dugulako.

4. EZ GARA NEUTRALAK

ARGIA n jendartea eraldatzeko tresna izan nahi dugulako kazetaritza kritikoaren bidez.

5. PODCASTAK ETA DANTAILAK EUSKARAZ

Ehunka dokumental, film-labur, hitzaldi eta abar eskaintzen ditugulako libre eta doan.

6. ELKARLANAK BULTZATUZ

Eragile ugarirekin proiektuak ditugulako: Inor Ez Da Ilegala, Bizi Baratzea, Lurra Herriari Deika, Euskarazko Plazen Sarea...

7. GOOGLE GABE

Gure irakurleen pribatutasuna babesten dugulako teknologia burujabetzan sakonduta.

8. BANAKETA EKOLOGIKOA

Bizikleta bidezko banaketa sustatzen dugulako, plastikorik gabeko zorrotan.

9. 100 URTETIK GORA

Ibilbide luzeko eta etorkizun luzeagoko proiektua delako.

10. MILAKA PERTSONAKO KOMUNITATEA

ARGIA Jendea delako proiektuaren independentziaren bermea.

11. ELKARTASUNEAN OINARRITUTAKO HARDIDETZA

Norberak erabakitzen duelako zenbat ordaindu, inor ARGIArik gabe gera ez dadin.

TXIKITIK ERAGITEN argia.eus/eginargiakoa

